

berriak Triforio-tik



araba
álava



Uda honetan beste fase bat amaituko da Santa Mariako transeptua, gurutzadura eta presbiterioa babestuko dituen Katedraleko estalkia zaharberritzeko lanen aurrerapenean. Hala, jarraipena emango zaio aurreko etapetan egindako lanari; etapa horietan, estalkirik baxuenak osatu ziren –alboko nabeetan, atarian eta sarreran–, ura iragaztearekin, teilak haustearekin eta egurrezko egitura hondatzearekin erlazionatutako arazoak larriagoak ziren lekuetan.

Transeptuaren estalkiaren zaharberritzea

Hasierako lan horien ondoren, 2020ko udazkenean esku-hartzearen parte horretako obrarik konplexuena hasi zen. Alde batetik, Katedraleko ganga garaieneta eta delikatueneta egin beharreko lanari ekin zitzaion. Horien gaineanezin da ibili, beraz, neketsua da eta bitarteko osagarri bereziak behar dira. Bestalde, aurrerapena elizako nabeen tarte bakoitzari dagozkion zatien arabera egin behar da, egur historikoko egitura berreskuratzeko eta berrerabiltzeko, eraiki berriarekin batera. Gainera, gangen finta-sun horrek berak gangak eurtik eta haizetik babesik gabe ez uztera, eta, beraz, pausoz pauso aurrera egitera behartzen du.

Oraindik egoera onean dauden antzinako piezak, batez ere XVII. mendeko zertxak eta mende horren eta XIX. mendearen artean jarritako uhal nagusiak, Nafarroatik ekarritako haritz zuriz egindako pieza berriekin konbinatzen dituen egurrezko egitura horrekin batera, itxitura-hormen goialdeak finkatu eta



indartu egin dira, harlangaitzez eta harrizko hargintzaz, eta teila berriak –behekoak edo lehengoak– zaharrekin –goikoak edo

aterpeak– konbinatuz egindako teilatu berriak ere osatu dira. Azken horiek izango dira ikusiko direnak eta monumentuaren itxura historikoari eutsiko diote. Teilatu hori jartzeko, tartean isolamendu ekologikoa duen eta gangen babes higrtermikoa hobetuko duen hiru geruzako taula prestatu da. Izan ere, jasaten denetaneurri handianetengabeko narriadura eragiten duten jauzi termikoak leundu egiten ditu.

Obra erremateko bi pieza ezberdinekin osatzen da. Lehenengoa ipar-mendebaldeko kantoiko eskailera-dorrearen gainean dago, eta estalki horren portaera eta kontserbazioa hobetuko duen berunezko estaldura berria jartzean datza. Gurutzaduraren erdiko erpinaren gainean dagoen bigarrenak, linterna txiki bat izango du, espazioaren barrualdea gangen gainean modu naturalean argiztatzeko. Horrela, bisitak eta teilatuamantentzekoeta tximistorratza jartzeko lanak erraztuko dira.



“Ikusezinaren barruan”, Magia Elizpean

Santa Mariako Elizpeak oso emanaldi berezia hartuko du aurten Magialdia - Gasteizko Nazioarteko Magia Jaialdiaren barruan. “Ikusezinaren barruan”, erabateko iluntasunean gauzatzen den magia-ikusizuna da.

Emanaldia Juan Esteban Varela mago txiletarrak eskainiko du, hiru saiotan, irailaren 12, 13 eta 14an. Helburua ikusmen-arazoak dituzten pertsonen magia gozatu ahal izatea da, eta gainerako par-

te-hartzaileek kolektibo horren errealitatea bizitzeko aukera izatea. Horretarako, hainbat elementu jasoko dituzte, behin ilunpetan daudela, egoera “magikoak” bizi ahal izateko.

Egunero 20:00etan hasiko den emanaldia, Magialdian egin ohi diren “Hurbilezko Magia Ibilbideak Alde Zaharretik” ikusizunaren parte da. Sarrera librea da, gonbidapenarekin, baina gogorarazi behar da edukiera oso mugatua dela.

Tomás Merlo Groupek emango dio amaiera “Kontzertuan eta Irekita 2022”

Irailaren 10ean, larunbatean, “Kontzertuan eta Irekita 2022” ekimenaren barruan programatutako azken emanaldia izango da, Tomás Merlo Groupen eskutik. Taldeari izena ematen dion Tomas Merlo musikari, moldatzaile eta konpositoreak eta Jorge Castañeda taldekideak osatutako taldeak, Crisis, bere lehen diskoa, ezagutzera emango du. Bertan, “Chapman Stick” izeneko sartzan dute jazzaren munduan.

Azken kontzertu horretarako sarrerak programaren webgunean daude eskuragarri, 10 euroren truke.

Pablo Milanés

Pablo Milanes kantautore kubatarrek ez zien huts egin joan den uztailaren 23an Atariko edukiera osoa bete zuten 200 pertsona ingururi, “Kontzertuan eta Irekita” edizio honetan ikusmin handiena piztu duen emanaldian. Inun euskal kantautoreak eta Kataluniako Metropolitan Union “barbershop” taldeak ere hartu zuten parte. Kontzertuan Milanese “Días de Luz” bere azken lana aurkeztu zuen eta gorputz eta arima zeuden ikus-entzuleak hunkitu zituen. Horien artean zegoen, besteak beste, Caco Senante kantautore kanariar handia.



Katedrala, Vueltan. Abuztuaren 23an Gasteizetik Guardiara abiatu zen Espainiako Txirrindularitza Itzuliko, Vuelta, laugarren etapa aitzakia ezin hobea izan zen mundu osoko milaka ikuslek Santa Maria Katedrala ezagutzeko. Tenplua, Gorka Aginagalde aktorearen partaidetzarekin TVEk egindako bideoaren protagonistetako bat izan zen. Gainera, Katedralako Aterpetxea TVEko taldeak etapako ibilbideari buruzko ikus-entzunezko pieza bat egiteko aukeratuak abiapuntua ere izan zen.